BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

5696

EBAZPENA, 2008ko martxoaren 31koa, Ingurumeneko sailburuordearena, Manuel García Mendoza SA enpresari ingurumeneko baimen-bateratua ematen diona Ortuellako udalerrian (Bizkaia) haragi-azpiproduktuak eralda ditzan.

AURREKARIAK

2006ko abenduaren 29an, Manuel García Mendoza SA enpresak Eusko Jaurlaritzako orduko Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Ortuellako (Bizkaia) udalerrian haragi-azpiproduktuak eraldatzeko jarduerarako. Eskaerarekin batera ondorengo agiri teknikoak erantsi ziren: «Enpresaren deskribapen orokorra: Manuel García Mendoza (2006)».

Erreferentziako baimena eskatzeko unean, Manuel García Mendoza SA enpresak, besteak beste, jarduerarako baimena zuen, 2003ko urtarrilaren 28koa. Baimen hori haragi-azpiproduktuak tratatzeko jarduerarako eman zitzaion. Halaber, enpresa sustatzailea nekazaritzako elikagaien jardueren erregistroan inskribatua zegoen 1971ko otsailaren 3az geroztik eta 1. kategoriako eraldatze-instalazio gisa lan egiteko baimena zuen, 2004ko apirilaren 21ekoa eta kolektorera isurtzeko baimena, 2002ko uztailaren 11koa, neurri zuzentzaileak betetzeko baldintzarekin, isurketei dagokienez indarrean dagoen araudiak xedatutakoari jarraituz.

2007ko apirilaren 19an, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran esku-hartzea duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, Ingurumen Organoaren bidez proiektua jendaurrean jartzeko izapidetzea adosteari dagokionez. Zehazki, Ortuellako Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari kontsultatu zien.

2007ko martxoaren 5ean eta 2007ko urriaren 1ean, Ingurumen Organoak agiri osagarriak txertatzeko eskatu zion sustatzaileari, eta espedientea 2007ko urriaren 26an osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumen sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako Ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Manuel García Mendoza SA enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko abenduaren 3an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru egunkaritan argitaratu zen 2007ko abenduaren 2an, eta proiektuak hartuko duen eremuaren ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, alegazio-idazki bat aurkeztu dela egiaztatu da, eta modu laburtuan I. eranskinean jaso da.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko urtarrilaren 14an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Ortuellako Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2008ko martxoaren 5ean, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Manuel García Mendoza SA enpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako Ebazpen-proposamena gehituz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta -lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen dira eta jarduera horrekin zerikusia dute.

16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Manuel García Mendoza SA enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: kolektorera isurtzeko baimena, hondakin arriskutsuen ekoizle txiki eta hondakin ez-arriskutsuen ekoizle izatearen inskripzioak, eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari dagozkionak. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dute, aginduzko txostenak igorriz.

16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak jarduera sailkatuetarako udal-lizentziaren prozedura ordezkatzen du, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan aurreikusten zena; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita aipatu arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Manuel García Mendoza SA enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Ortuellako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, Ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika onenen erabilera eta aplika dakiokeen

alorreko legerian ezarritako neurriak eta baldintzak. Zehazki, Europako Batzordearen 2005eko maiatzeko BREF Reference Document on Best Available Techniques in the Slaughterhouses and animal by-products industries agiriaren edukia hartu da kontuan. Gainera, sektoreko araudiei dagokienez, kasu honetan bereziki aplikatzekoa da giza kontsumorako ez diren animalia-azpiprodukTuei aplikatzekoak zaizkien arau sanitarioak ezartzen dituen Europako Parlamentuaren 1774/2002 zenbakiko araudia eta 2002ko urriaren 3ko Kontseiluaren Araudia; eta Euskal Autonomia Erkidegoko industrietan eta saltegietan sortzen diren eta gizakiek jateko ez diren animalia-azpiprodukTuei buruzko uztailaren 29ko 198/2003 Dekretua.

Espedienteko txostenak eta aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, horiekin lotuta txostena erantsi da I. eranskinean, eta ebazpen-proposamena egin eta Manuel García Mendoza SA enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da, eta organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako araudiaren 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2008ko martxoaren 5en emandako ebazpen-proposamena; Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; Legea burutzeko araudia onartzen duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua; Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretua; Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea eta aplika daitekeen gainerako araudia,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Ortuellako (Bizkaia) udalerriko Granada industrialdeko Granada auzoko Bilbao hiribidea z/g helbide soziala duen eta IFK: A4807965 zenbakia duen Manuel García Mendoza SA enpresari Ingurumeneko Baimen Bateratua ematea, Ortuellako udalerrian haragi-azpiprodukTuak eraldatzeko jarduerarako eta ebazpen honetako Bigarren atalean ezarritako baldintzak jarraituz.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskinaren 9.2 kategorian sartuta dago, «Animalia-gorpuzki edo –hondakinak ezabatu edo aprobetxatzeko industriak, eguneko 10 tona baino gehiago produzitzeko gaitasuna dutenak» izenburuarekin.

Enpresa 10.500 m^2-ko lursailean kokatzen da, eta horietatik 1.600 m^2 enpresaren erabilera partikularrerako dira. Gainerakoa ondoko bi enpresekin partekatzen du.

Jarduera haragi-azpiprodukTuak eraldatzean oinarritzen da, bi produkzio-lerroren bidez: «haragi-azpiprodukTuak eraldatzeko lerroa (irina)» eta «koipeen lerroa». Tratamendu-ahalmena urteko 10.800 tona lehengaikoa da; haragi-azpiprodukTuen (irina) lerroan urteko 3.240 tona ekoizten dira eta koipeen lerroan 2.160 tona urtean.

Giza kontsumorako ez diren animalia-azpiprodukTuei aplikatzekoak zaizkien arau sanitarioak ezartzen dituen Europako Parlamentuko 1774/2002 eta 2002ko urriaren 3ko Kontseiluaren

Araudiari jarraituz 1. eta 2. kategoriako animalia-azpiproduktuetan oinarritzen den prozesatutako lehengaia, toberetan edo zoruetan kamioietatik deskargatzen da, tamainaren arabera (animalia txikiak, erraiak...). Animalia handiak hanketatik lotzen dira aireko sare batera eta garuneko atala kendu, aurreko hankak eta adarrak moztu eta larrutu ondoren, aurretiaz birrindu egiten dira, ondoren hartze-toberetara eramateko. Ondoren, gordinki guztiak birrindu egiten dira txikitzeko errota batean eta digestoreetan digeritzen dira. Bertan, koipeak batzen dira animalia-proteina bereiz dadin. Jarraian, prentsaketa egiten da torloju-prentsa batean hondar-koipea kentzeko xedearekin. Horrela, solido bat (txitxarroa) eta koipea lortzen dira azpiproduktu gisa. Azkenik, txitxarroa ehotu egiten da animalia jatorria duen irina lortu arte. Horri % 15era arteko sepiolita gehitzen zaio hezetasuna kentzeko, eta ondoren, zuloetan biltegiratzen da mahuka-iragazkietan oinarritzen den arazte-sistema baten bidez. Bestalde, digestio-fasearen ondoren azpiproduktu gisa lortutako koipea aurreiragazten eta Decanter batean dekantatzen da. Azken honek, zentrifugazioaren bidez, irinaren partikula solidoak ezabatzen ditu eta lortutako koipea 85º C-tan dauden andel erregaitzetan biltegiratzen da.

BIA fuel-olioa eta animalia-koipea energia gisa erabiltzen dira. Bi energiak erregai gisa erabiltzen dira digestio-prozesuan beharrezkoa den lurruna sortzeko erabiltzen diren bi galdaretan. Orduko 10 tona eta orduko 12 tona lurrun sortzeko ahalmena dute. Halaber, biodiesela barruko garraiorako eta energia elektrikoa erabiltzen dira.

Sortutako hondakin-urak (industrialak, garbiketakoak eta sanitarioak) urak tratatzeko instalaziora bideratzen dira eta bertan, tratamendu fisiko-kimikoa jasaten dute eta ondoren, Bilbao Bizkaiako Ur Partzuergoko kolektorera isurtzen dira. Euri-ur garbiak zuzenean ibaira bideratzen dira.

Halaber, digestio-prozesuan lurrundutako materia organikoari dagozkion uren tratamendu-sistema dago, urak 3 aire-kondentsagailutatik pasatu aurretik zikloi batzuetatik pasatuz, eta azkenean, ikatz aktiboko iragazki batetik, ondoren kolektorera isuri ahal izateko.

Usainen tratamendurako usainak kentzeko instalazio bat dago eta horren bidez, usain ezatseginak sor daitezkeen prozesuko puntuetan lurrunak biltzen dira, giro-tenperaturan dagoen urarekin scrubber batetik pasatuz. Ondoren, bigarren dorre batetik pasatzen dira eta bertan, zirkuitu itxian ura, sodio hipokloritoa eta sodio hidroxidoko diluzioko dutxa jasaten dute, atmosferara isuri aurretik.

Ezarritako TEOak ondorengoak dira: isolamendu termikoa, digestioa lurruna kondentsatzearen bidez, hondakin-urak tratatzeko sistema egokia, euri-uren sare bereizlea eta sakabanaketa, gainazal hotz eta beroen isolamendu termikoa, instalazio eta makinen prebentziozko mantentze-lanak eta hondakinak kudeatzeko sistema egokia. Horiek guztiak 2005eko maiatzeko Reference Document on Best Available Techniques in the Slaughterhouses and animal by-products industries BREF agirian sartuta daude.

Bigarrena.– Honako baldintzak eta eskakizunak ezartzea Manuel García Mendoza SA enpresak Ortuellako udalerrian sustatutako haragi-azpiproduktuak eraldatzeko jarduera ustiatzeko.

A) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingurumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, Manuel García Mendoza SA enpresak aldaketa horien berri emango du.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusita bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Instalazioaren funtzionamendurako baldintza orokorrak.

B.1.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.– Baldintza orokorrak.

Haragi-azpiproduktuak eraldatzeko instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurtzeek ez dituzte ebazpen honetan ezarritako isurtzeko muga-balioak gainditukо.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango gai kutsatzaileak mugarik gabe isuri eta horiek biltzea teknikoki edota ekonomikoki bideragarria ez denean, edo ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabean gai kutsatzailerik ez botatzeko, eta botatzen direnak giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Haragi-azpiproduktuak eraldatzeko instalazioak ondorengo fokuak ditu, atmosfera babestearen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

Foku zk.	Erregistro-liburuan duen izena	Isurtze-fokuaren izena	Garaiera	Barruko diametroa	Katalogazioa	UTM koordenatuak	
					Taldea	X	Y
1	48001543-01	1. lurrun-sorgailua (SIGNY lurrun-galdara)	11 m	0,9 m	C	496.405	4.794.810
2	48001543-02	2. lurrun-sorgailua (GEVAL lurrun-galdara)	11 m	0,9 m	C	496.401	4.794.813
3	48001543-03	Usainen gasak xurgatzea	9,9 m	0,9 m	A	496.405	4.794.815

Gainera, hotzaren sorkuntza-sisteman, errotan eta digestio-prozesuan (gas ez-kondentsagarriak) isurtze barreiatuak sortzen dira.

Isurtze-fokuei buruzko ondorengo agiriak aurkeztu beharko ditu sustatzaileak:

● Usainak xurgatzeko fokuaren tximiniaren garaieraren kalkuluen memoria justifikatzailea, industria-jatorriko atmosferaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari buruzko 1976ko urriaren 18ko Aginduaren II. eranskinean adierazitakoari jarraituz, edo parametro meteorologiko eta topografikoak kontuan hartzen dituzten sakabanaketarako bestelako eredu fisiko-matematikoak (kutsatzaileentzat: partikula solidoak, Cl, HCl eta SH_2).

● Digestio-sistematik datozen gas ez-kondentsagarriek jasotzen duten tratamenduaren deskribapena.

B.1.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurtzeek ez dituzte isurtzeko muga-balio hauek gainditukо:

Fokua(k)	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
1. lurrun-sorgailua (SIGNY lurrun-galdara)-BIA fuel-olioa	Nitrogeno oxidoak (NO_x) NO_2 gisa neurtuta	300 ppm
	Karbono monoxidoa (CO)	1.445 ppm
	Sufre oxidoak (SO_x), SO_2 gisa neurtuta	850 mg/Nm3
	Opakutasuna	4 (Bacharach eskala)
1. lurrun-sorgailua (SIGNY lurrun-galdara)-animalia-koipea	Nitrogeno oxidoak (NO_x) NO_2 gisa neurtuta	300 ppm
	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Opakutasuna	2 (Bacharach eskala)
2. lurrun-sorgailua (GEVAL lurrun-galdara)-BIA fuel-olioa	Nitrogeno oxidoak (NO_x) NO_2 gisa neurtuta	300 ppm
	Karbono monoxidoa (CO)	1.445 ppm
	Sufre oxidoak (SO_x), SO_2 gisa neurtuta	850 mg/Nm3
	Opakutasuna	4 (Bacharach eskala)
2. lurrun-sorgailua (GEVAL lurrun-galdara)-animalia-koipea	Nitrogeno oxidoak (NO_x) NO_2 gisa neurtuta	300 ppm
	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Opakutasuna	2 (Bacharach eskala)
3. Usainen gasak xurgatzea	Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	20 mg/Nm3
	Partikula solidoak	50 mg/Nm3
	Hidrogeno sulfuroa (SH_2)	10 mg/Nm3
	Azido klorhidrikoa (HCl)	30 mg/Nm3

Ebazpen honen B.1.6 puntuan adierazi bezala egingo diren analisi fisiko-kimiko eta usaimen metrikoen arabera, aplikatu beharreko bestelako muga eta neurri zuzentzaileak aztertuko dira.

Balio horiek baldintza hauek dituzte: 273º K-eko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa eta gas lehorra.

Neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditukо arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40a gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gaindituz gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi honetako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25a gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eraginpeko zonaldean ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

B.1.1.4.– Gasak biltzeko eta husteko sistemak.

Fokuetako gas-hondarrak kanporatzeko tximiniek ez dute E.1.1.2 atalean jasota dagoen goreneko kota baino baxuagoa izango. Tximinietan behar beste neurri hartuko dira Industria Ministerioak industriak atmosferan eragiten duen kutsadurari aurrea hartu eta hori zuzentzeari buruz 1976ko urriaren 18an emandako Agindua bete dezaten; besteak beste, laginak hartzeko puntuetara iristeko sarbide seguru eta errazak izango dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein perturbazio izan dezakeen gunera bitarteko distantziek (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute. L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetarako inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliotasuna justifikatzea eskatuko da.

Halaber, neurketa eta irakurketa ofizialak aldez aurretik abisatu gabe egiteko beharrezko gutxienekoak izango dituzte (argindarra eta beste batzuk).

Era berean, galdaretan erabili beharreko erregaiei dagokienez, BIA fuel-olioa gas naturalez ordezkatzeko aukera bideragarria den aztertuko da.

B.1.2.– Saneamendu-sarera isurtzeko baldintzak.

B.1.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: haragi-produktuak fabrikatzea.

Jarduera-taldea: 4.

Mota-taldea-EJSN: 1-4-15.13.

Isurketa-puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Isurketa-puntuaren UTM koordenatuak
1	Industria-urak, garbiketa-urak eta ur sanitarioak	Isurketa-puntuaren fluxuak ondorengoak dira: ● Nabearen, instalazioen eta harrera-guneko kamioien barrualdearen garbiketaren ondorioz sortutako garazta-hodiaren urak (aldez aurretik arazketa gauzatzen da HUAn). ● Birrintze, lehengaiaren, koipeen dekantatze, prentsaketa eta kondentsatze-uren prozesuetatik sortutako prozesuko urak (aldez aurretik ikatz aktiboko iragazki batetik pasatzen dira). ● Instalazioen kanpoaldeko ibilgailuen garbigailuan sortutako ibilgailuen kanpoaldeko garbiketa-urak. ● Usainak arazteko sistemaren garbiketa-dorrearen purgatzeak. ● Ur sanitarioak. ● Lurrun-galdaren purgatzeak. ● Lurrun-galdaren ihesak. ● Instalazioen eta enpresaren ekipoen garbiketatik sortutako RAFRINOR urak.	Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren kolektorea	X: 496.317 Y: 4.794.829

B.1.2.2.– Gehienez isur daitezkeen emari eta bolumenak.

1. isurketa: industria-urak, garbiketa-urak eta ur sanitarioak.

Orduko puntako emaria	5,31 m^3/h
Eguneko gehienezko bolumena	53,1 m^3/egun
Urteko gehienezko bolumena	16.468 m^3

B.1.2.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Saneamendu-sarera egiten diren isurketen kutsaduraren parametroen ezaugarri nagusiak ondorengo zerrendan ageri direnak izango dira soilik, bakoitzarentzat ezarritako gehienezko mugekin:

a) 1. isurketa: industria-urak, garbiketa-urak eta ur sanitarioak.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko kolektorera doazen isurketei buruzko araudian agertzen diren mugak eta baldintzak bete beharko ditu azken isurketak, erakunde horrek aintzat har ditzakeen zehaztapen, aldaketa eta salbuespenekin.

Sustatzaileak administrazio hidraulikoaren erakunde laguntzaileak egindako analisiak aurkeztu beharko ditu, ondorengoak kontuan hartuz: jardueraren parametro orokorrak, 2000ko uztailaren 17an Europako Batzordeko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak argitaratutako EPER txostena gauzatzeko Bideratze Agirian zehaztutako sektoreko azpizerrenden araberako berariazko parametroak eta aplikatu beharreko BREF agiriak (animalia-azpiprodukTuen BREF agiriak). Gutxienez, isurketa-puntu bakoitzaren lagin hartu berriei buruzkoak izan beharko dira eta lagin hori 24 orduko emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

Isurketa-korronte desberdinak daudenez eta horietako batzuk etenak direnez, adierazitako isurketa-mugak betetzen direla bermatu beharko da uneoro.

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

B.1.2.4.– Araztu eta husteko instalazioak.

Manuel García Mendoza SA enpresaren arazketa-instalazioak edo dituen hondakin-urak zuzentzeko neurriak funtsean ondorengoak dira:

● Ikatz aktiboaren bidezko kondentsazioa eta iragaztea; bertan, digestio-prozesuan lurrundutako produktuari dagozkion urak 2 zikloietatik pasatzen dira, eta ondoren, 3.100 kg/h, 6.300 kg/h eta 10.000 kg/h ahalmena duten 3 aire-kondentsagailutatik pasatzen dira, kondentsatu daitezen. Azkenik, kondentsatutakoak metro bateko diametroa, 1,5 m-ko garaiera eta material iragazle gisa usainak kentzeko 275 kg ikatz aktibo dituen ikatz aktiboko iragazki batetik pasatzen dira. Instalazioaren ahalmena eguneko 200 m^3 da.

● Araztegian tratamendu fisiko-kimikoa, ondorengo elementuak dituena: hartze-putzua, efluentea lurperatutako bi putzutan jasoz; bahe birakaria solido lodiak ezabatzeko, bereizketa arraspen bidez eginez; 20 m^3-ko ahalmena duen homogeneizazio-andela eta 1,5 m^3-ko ahalmena duen lohien malutatzailea/dekantatzailea/lodigailua, koagulazio-malutapen prozesuari bideratuta. Arazketa-instalazioaren tratamendu-bolumena eguneko 20 m^3 izango da.

Ondorengo neurri zuzentzaileak gauzatuko dira:

● Isurketentzat ezarritako egokitzeko hiru oinarrizko lerroen moldaketa, nahikoak izan daitezen eta isurtzeko mugak bete ditzaten.

● Laginak hartzeko kutxetan emari-neurgailu eta pH-neurgailu jarraitua ezartzea.

● Araztegiaren deskargatzeko gunean hondar-iragazki bat ezartzea.

● Baheak eta sifoiak dituzten hustubideak erabiltzea, solidoak hondakin-uretara pasatzea saihesteko.

● Gainbetetzearen babesa aplikatzea biltegiratzeko andeletan.

● Biltegiratzeko andeletan hormak erabiltzea.

Hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla ikusiz gero, Manuel García Mendoza SA enpresak behar beste aldaketa egingo ditu arazketako instalazioetan isurketak baimenean ezarritako baldintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik; behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

Aurkeztutako agirien arabera, isurketak kontrolatzeko kutxeta bat jarriko da azken isurketarako; kutxeta horrek isurketen lagin esanguratsuak lortzeko beharrezkoak diren ezaugarri guztiak izan

beharko ditu. Kutxeta ikuskatu ahal izateko sarbide zuzena ahalbidetzen duten lekuan kokatuko da, hala dagokionean.

B.1.3.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hala badagokio, hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helburu egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro baliotu egin behar da eta horretarako balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira baliotzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Baimendutako zabortegian ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa, 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira. Bestela, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako jarraibideekin bat etorriz gauzatuko da.

Hondakinak biltzeko eremuek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinek desagertu, galdu edo ihes egingo balute, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Ortuellako Udalean.

B.1.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak honako hauek dira:

- 1. prozesua: «Zerbitzu orokorrak».
  - 1. hondakina: «Kutsatutako metalezko ontzi hutsak».
    - Identifikazioa: A48070965/48040226/1/1.
    - Hondakinaren kodea: Q05//R13//S36//C41-51//H05//A241//B0019.
    - EHZ: 150110.
    - Urtean sortutako kantitatea: 300 kg.
  - 2. hondakina: «Kutsatutako plastikozko ontzi hutsak».
    - Identifikazioa: A48070965/48040226/1/2.

– Hondakinaren kodea: Q05//R13//S36//C41-51//H05//A241//B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 100 kg.

○ 3. hondakina: «Kutsatutako xurgatzaileak».

– Identifikazioa: A48070965/48040226/1/3.

– Hondakinaren kodea: Q05//R13//S40//C41-51//H05//A241//B0019.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 200 kg.

○ 4. hondakina: «Olio erabiliak».

– Identifikazioa: A48070965/48040226/1/4.

– Hondakinaren kodea: Q08//R13//L8//C51//H05//A241//B0019.

– EHZ: 130205.

– Urtean sortutako kantitatea: 25 litro.

○ 5. hondakina: «Pilak».

– Identifikazioa: A48070965/48040226/1/5.

– Hondakinaren kodea: Q06//R13//S37//C11-16//H06//A241//B0019.

– EHZ: 200133.

– Urtean sortutako kantitatea: 2 kg.

○ 6. hondakina: «Hodi fluoreszenteak».

– Identifikazioa: A48070965/48040226/1/6.

– Hondakinaren kodea: Q06//R13//S40//C16//H06//A241//B0019.

– EHZ: 200121.

– Urtean sortutako kantitatea: 3 unitate.

○ 7. hondakina: «II. motako hondakin biosanitarioak».

– Identifikazioa: A48070965/48040226/1/7.

– Hondakinaren kodea: Q16//D15//S01//C35//H09//A111//B0019.

– EHZ: 180103.

– Urtean sortutako kantitatea: 3 kg.

○ 8. hondakina: «Laborategiko hondakinak».

– Identifikazioa: A48070965/48040226/1/8.

– Hondakinaren kodea: Q02//R13//L14//C23-24//H06//A241//B0019.

– EHZ: 160506.

– Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela-eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

b) Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko erregelamendua onartzen duen uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

c) Aurreko atalean aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

d) Berariazko hondakin sanitarioak (II. taldea) manipulatu, ontziratu, etiketatu eta gordetzeko baldintzak Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeko baldintzak arautzen dituen martxoaren 26ko 76/2002 Dekretuan eta hori garatzeko araudietan ezarritakoak izango dira.

e) Gainerako hondakin arriskutsuak ezin izango dira 6 hilabete baino gehiago gorde.

f) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

g) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren zati bat garraiolariari emango zaio, zamarekin batera jatorritik helmugaraino eraman dezan. Manuel García Mendoza SA enpresak artxibategian erregistratu eta gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

h) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

i) Manuel García Mendoza SA enpresak Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraituz kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

j) Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuan aurreikusitako baimendutako kudeaketa bateraturako sistema bat ezartzen ez den bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen irailaren 29ko 259/1998 Dekretuan begiesten diren aurreikuspenak bete beharko ditu Manuel García Mendoza SA enpresak.

k) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, tresna elektriko zein elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzko otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

l) Manuel García Mendoza SA enpresak PKB daukaten gailuak dituenez, nahitaez bete behar ditu horiek behar bezala kudeatzeko poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretua, eta errege dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua.

m) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Erregelamenduan ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Manuel García Mendoza SA enpresak era horretako substantzia erabilirik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen-ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparatuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik nahiz desmuntatu edo suntsitu baino lehen.

n) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera– eta lagapen-datak, jasotzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, Ingurumen Sailburuordetzari kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko dio.

o) Aurreko h) eta i) (kudeatzaileak EAEn daudenean), eta u) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

p) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Manuel García Mendoza SA enpresak amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeari buruzko 1991ko otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun eta osasun arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

B.1.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta	Zenbatetsitako ekoizpena
Tonerra	080313	Administrazioa	---
Inprimatzeko tintak	080313	Administrazioa	---
Txatarra metalikoak	200140	Mantentze-lanak	592 kg
Plastikozko ontzi hutsak	150102	Produkzioa eta garbiketa	37,5 kg
Metalezko ontzi hutsak	150104	Produkzioa eta garbiketa	300 kg
Papera eta kartoiak	200101	Administrazioa	120 kg
Egurrezko palet garbiak	200138	Harrera	240 kg
Material erregogorra	100499	Mantentze-lanak	200 kg

Urtean sortzen duen toner (kg/urtean) eta inprimatzeko tinten (kg/urtean) kopurua aurkeztu beharko du sustatzaileak.

a) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztagune baimendu batera.

b) Hondakin horiek ezabatzeko direnean ezin dira urtebete baino gehiagoz biltegiratuta eduki. Hondakinen azken helburua baliotzea denean, 2 urtez gorde ahal izango dira.

c) Oro har, hondakinak hustu aurretik, baimendutako kudeatzaile batek onartzen dituela dioen agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua Ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Manuel García Mendoza SA enpresak artxibategian erregistratu eta gorde beharko ditu onarpen-agiriak edo horien agiri ofizial baliokideak, horiek aginduzkoak direnean, bost urtean gutxienez.

d) Halaber, hondakin geldo eta geldoarazien kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

e) Erregistro bat egingo da, hondakinei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

f) Aurreko c) eta d) (kudeatzaileak EAEn daudenean), eta e) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

B.1.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako aginduak betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztutako aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Manuel García Mendoza SA enpresak lurzorura isuriak edo zipriztinak sor ditzaketen prozesuaren atalak itxi beharko ditu; produktuaren maila aldatzearen ondorioz sortutako ihesen kasuan alarma-sistemak ezarri beharko ditu eta isuri txikiei eusteko edo xurgatzeko ekipoak izan beharko ditu.

Gainera, kudeaketari lotutako ondorengo neurri orokorrak abian jarriko dira:

● Instalazioen mantentze-lan eta ikuskapen programak aplikatzea. Programa horiek prebentziozko eta babeserako neurrietara hedatuko dira, euren eraginkortasuna kontrolatze aldera.

● Larrialdietarako planak, istripuz sortutako balizko ihes eta isuriei eusteko jarduketak barne dituztenak.

● Langileen trebakuntza.

● Inbentarioa egiteko eta produktua kudeatzeko sistemak, izakinak kontrolatzeko eta balizko galerak detektatzeko.

B.1.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurriak instalatuko dira:

a) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 37 bB (A) baino handiagoa izan logeletan eta egongeletan, eta 40 db (A) barrualdeko gainerako guneetan, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 08:00ak eta 22:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 45 dB (A) ere gehienezko balioetan.

b) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 27 bB (A) baino handiagoa izan logeletan eta egongeletan, eta 30 db (A) barrualdeko gainerako guneetan, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 22:00ak eta 08:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 35 dB (A) ere gehienezko balioetan.

c) Era berean, zarata ezin da 60 dB (A) baino handiagoa izan, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, industria-eremuaren kanpoko itxituran.

d) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du handituko sentsibilitate akustiko handieneko guneetako zarata-maila. Halaber, ondorengoa kontuan hartuko da:

● Salgaien zamalanetan, langileek arreta berezia jarri beharko dute inpaktu zuzenak ez sortzeko, nola ibilbidean zehar karga garraiatzean edo dardara egitean sortutako zarata saihesteko.

● Beharrezko neurri zuzentzaileak hartzea eska dezake Administrazioak, gisa honetako eragiketek sortutako eragozpenak murrizte aldera, eta zehazki, nahitaezkoa izango da ibilbidean zehar sortutako zarata indargetuko duten gurpil pneumatikoak dituzten gurdiak edo orgatilak erabiltzea.

B.1.6.– Usainei buruzko baldintzak.

Usainak murrizteko neurri gisa, Manuel García Mendoza SA enpresak ondorengo sistemak ditu:

● Lurrunen isurtze barreiatuen bilketa usainen jarioak sor daitezkeen instalazioaren puntuetan (hartze-toberak, digestoreetara sarrera, digestoreetara irteera, txintxorta-toberak, prentsen sarrera eta irteera, errota, zentrifugatzailea eta irinen nabea (nabetik sortutako airea aldez aurretik mahuka-iragazki batetik pasatuko da). Lurrun horiek buztaneko xurgatze-sistema baten bidez biltzen dira, eta hodi-sare baten bidez garbiketa-dorreetara bideratzen dira, scrubber bat edo giroko tenperaturako ura duen dutxa bat eta ur-diluzioa duen zirkuitu itxiko dutxa bat, sodio hipokloritoa 450 mv-ra arte eta sodio hidroxidoa % 25ean dituztenak. Azkenik, haizagailu-xurgatzaile batetik pasatu ondoren, tximiniatik irteten da. Instalazioaren tratamendu-ahalmena 50.000 m^3/h da.

● Ikatz aktiboaren bidez kondentsatze- eta iragazte-sistema; horrela, materia organikoaren digestio-prozesuan sortutako isurtzeak bi zikloietatik pasatzen dira, partikula solidoak eta ur-tantak eusteko xedearekin. Ondoren, 3.100 kg/h, 6.300 kg/h eta 10.000 kg/h ahalmena duten hiru aire-kondentsagailutara zuzentzen dira, kondentsatu daitezen. Lortutako kondentsatuak pilatze-andel batean biltegiratzen dira eta bertatik, ponpatu egiten dira 1 m-ko diametroa, 1,5 m-ko garaiera eta iragazteko material gisa usainak kentzeko 275 kg ikatz aktiboa duen ikatz aktiboko iragazki batetik pasatzeko. Azken honek eguneko 200 m^3-ko tratamendu-ahalmena du eta partikula solidoak eta koipeak atxikitzen ditu, usainaren zati handiena ezabatuz. Lortzen diren kondentsatuak kolektorera isurtzen dira.

● Usaina neutralizatzeko sistema aspertsio-piten bidez, ura eta usain atsegina sortzen duten molekula organikoen produktu kimiko neutralizatzaile baten nahasketaren presiozko airearekin.

Sistema horiek berauen funtzionamendu zuzena bermatzeko moduan mantenduko dira.

«Usainen xurgapena» izeneko 1. fokuan ezarritako garbiketa-dorreei dagokienez, egun usainak sortzen dituzten kutsatzaile atmosferikoen isurtzeek eragindako ingurumeneko arazoak ebaluatuko dituen azterketa egin beharko da. Horretarako, analisi fisiko-kimikoa nola usainak neurtzeko analisiak jasoko dituen neurketa-kanpaina egin beharko da. Azken honek, jardueraren usainaren iturri-sortzaileei lotutako isurtzeen usainaren unitateak neurtuko ditu.

Gainera, ondorengo neurriak gauzatuko dira:

● Jasotako lehengaia berehala tratatzeko aukerarik ez dagoenean, hozte-ganbera erabiliko da materia horren deskonposizioaren ondorioz sortutako usainak saiheste aldera.

● Lehengaien biltegiratzeen toberak, kamioiak eta edukiontziak garbitzeko eta desinfektatzeko protokoloa edukiko da, usainen isurtzeak murrizteko xedearekin.

● Animalien hondakinak denbora laburrean biltegiratuko dira, eta ahal bada, izoztuta.

● Garraiatzerakoan eta zamalanetan, animalien hondakinak estali egingo dira.

● Deskonposizioaren aurretik odola eta hondakinak tratatzea posible ez denean, lehenbailehen hoztuko dira deskonposizioa murrizteko helburuarekin eta modu horretan usainak isurtzea saihestuz.

● Hondakin-uraren gelditasuna saihestuko da.

C) Ingurumena Zaintzeko Programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

C.1.– Atmosferara botatzen diren poluitzaileak kontrolatzea.

a) Manuel García Mendoza SA enpresak isurtzeen kontrola egin beharko du, informazio honi jarraituz:

Fokua	Erregistro-liburuaren izena	Fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	48001543-01	1. lurrun-sorgailua (SIGNY lurrun-galdara)-BIA fuel-olioa	Nitrogeno oxidoak (NO_x) NO_2 gisa neurtuta Karbono monoxidoa (CO) Sufre oxidoak (SO_x), SO_2 gisa neurtuta Opakutasuna	5 urte
		1. lurrun-sorgailua (SIGNY lurrun-galdara)-animalia-koipea	Nitrogeno oxidoak (NO_x) NO_2 gisa neurtuta Karbono monoxidoa (CO) Opakutasuna	5 urte
2	48001543-02	2. lurrun-sorgailua (GEVAL lurrun-galdara)-BIA fuel-olioa	Nitrogeno oxidoak (NO_x) NO_2 gisa neurtuta Karbono monoxidoa (CO) Sufre oxidoak (SO_x), SO_2 gisa neurtuta Opakutasuna	5 urte
		2. lurrun-sorgailua (GEVAL lurrun-galdara)-animalia-koipea	Nitrogeno oxidoak (NO_x) NO_2 gisa neurtuta Karbono monoxidoa (CO) Opakutasuna	5 urte
3	48001543-03	Usainen gasak xurgatzea	Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG) Partikula solidoak Hidrogeno sulfuroa (SH2) Kloroa (Cl_2) Azido klorhidrikoa (HCl) Amoniakoa (NH_3)	Urtero

Goiko atalean adierazitako neurketa guztiak Baimendutako Kontrol Erakunde (BKE) batek egin behar ditu (gutxienez, ordubeteko hiru neurketa, zortzi ordutan barrena neurtutakoak) eta aldizkako neurketa horiei dagozkien txostena, Ingurumen Sailburuordetzaren «BKEren gutxieneko txostenean» ezarritakoari egokitu behar zaio. Nolanahi ere, isurtzeko kontrolek eta baldintzek Ingurumen Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

Arestian eskatutako parametro guztien neurketen BKE txostenak bidaliko dira. Neurketa berriak egin beharko dira, baldin eta parametroen neurketarik ez badago edo egindako neurketak ebazpen honetan kontrol-maiztasuna ezarri aurretik egindakoak badira. Atmosferara egiten diren isurtzeen ondorengo kontrolak, egindako azken neurketan adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

C.1.1.– Lortutako emaitzak erregistratzea.

Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean. Dokumentazio gaurkotua erabilita gauzatuko da erregistroa, eta industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzko 1976ko urriaren 18ko Aginduak 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egindako neurketen emaitzak, mantentze-lanak, garbiketa, aldizkako ikuskatzeak, matxuraren ondorioz gertatutako etenaldiak, egiaztapenak, edozein motako gorabeherak, eta abar. Dokumentazio horrek eguneratuta egon beharko du, eta ingurumen-ikuskatzaileek eskatuko balute, eskuragarri izango dute.

C.1.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, ondorengo analisiak egingo dira:

Isurketa-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol-mota
1	industria-urak, garbiketa-urak eta ur sanitarioak	Oxigeno-eskaera kimikoa (OEK)	Urtero	Kanpoko kontrola
		Oxigeno-eskaera biokimikoa (DBO5)		
		Solido esekiak (S.E.)		
		Guztizko nitrogenoa (NGUZTIZKOA)		
		Guztizko fosforoa (PGUZTIZKOA)		
		Olioak eta koipeak		
		pH		
		Tenperatura (T^{a})		
		Nitrogeno amoniakala (N-NH3)		
		Amonioa		
		Detergenteak		
		Hidrokarburo aromatiko polo-ziklikoak (HAP)		

Isurketa-kontroleko kutxetaren UTM koordenatuak adierazi beharko dira.

b) Kanpoan egiten den kontrol bakoitza, laginak hartzea nola ondorengo analisia, «Erakunde Laguntzaile» batek egin eta egiaztatuko du, eta goiko puntuetan aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak isurketa-puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira laginak hartzen direnetik hilabete bateko (1) epean. Bestalde, emaitza horiek Uraren Euskal Agentziako Bizkaiko Ordezkaritzara bidali beharko dira hiru hilean behin.

c) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira beti.

d) Isurketak baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, 0 atalean adierazitako parametro guztientzat ezarritako mugak betetzen badituzte.

e) Gainera, sustatzaileak pH-aren autokontrolak egingo ditu efluentean, eta hori egiaztatzea egokia bada, uren ikuskaritzaren esku egongo den erregistro-liburu batean idatziko ditu.

f) Gainera, enpresak isuriaren kalitatearen autokontrol bat egingo du, gutxienez astean behin, OEK eta gai esekiak parametroekin, eta emaitza horien laburpen bat igorriko du hiru hilean behin, kanpo-kontrolen txostenekin batera.

C.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

Adierazlea	Unitatea
Kontsumitutako uraren bolumena / erabilitako lehengaiaren pisua	l/t
Isuritako uraren bolumena / erabilitako lehengaiaren pisua	l/t
Kontsumitutako energia / erabilitako lehengaiaren pisua	kWh/t

C.4.– Zarataren kontrola.

Jarduera garatzen den lur zatiko kanpoko baldintza akustikoak hiru urtean behin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez.

Sustatzaileak neurketen proposamen zehatz bat landu beharko du eta neurketa-metodo zehatzak adierazi bertan. Proposamen hori ebazpen honetako C.6 atalean aipatzen den ingurumena zaintzeko programaren testu bateginarekin batera aurkeztuko da.

C.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, beti martxoaren 30 baino lehen, ingurumenean aditua den erakunde aske batek egindako txostenarekin batera. Txosten horretan adieraziko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua, eta prozesuak eta inguruneareN kalitatea kontrolatzeko sistemak. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

C.6.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta ebazpen honetan proposatutako betebeharrak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko guneen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika barruan izan beharko du, horien arabera enpresan bertan ingurumen-

hobekuntza ziurtatzearren ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

D) Ezohiko egoeretan kutsadurari aurrea hartzeko neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Instalazioa gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, isurtzeen eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du enpresak, eta dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere bai.

D.2.– Jarduera uztea.

Jarduera lege hauen aplikazio-esparrukoa da: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea (15.4 epigrafea), eta kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Hori dela-eta, Manuel García Mendoza SA enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

D.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko neurriak eta jarduketak.

Aurkeztutako dokumentazioan egindako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa-mota), eta lurzoruaren gaineko isuriak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Goian aipatutako prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan, atmosferaren kutsadurari aurrea hartzeko eta zuzentzeko (arazketa, minimizazioa, eta abar) sistemen egoera ona bermatuko duten neurriak gehitu behar dira.

d) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

e) Besteak beste, olioak, erregaiak, produktu kimikoak, efluenteen arazketako hondakinak, eta orokorrean, fabrikan sortutako hondakinak maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa dezake. Beraz, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen lur zatien azalera guztiak iragazgaiztuko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

g) Hauts-produktuak gordetzeko (irina), iragazkiak dituzten zulo itxiak egongo dira. Era berean, errotaren gainean kokatutako erauzketa-kanpai bat ezarriko da, sakabanatutako irina jaso eta mahuka-iragazkietara bidaltzeko xedearekin.

h) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, egiaztatu egin beharko da biltegiratzeko instalazio horiek bete egiten dituztela produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

i) Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen jarioei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako inguruneak isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

j) Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da kubetak husteko eragiketak kontrolatzeko protokolo edo agiri bidezko prozedura; eraginkortasunean eragin dezaketen produktuen jarioak ez dira tratamenduko instalaziora eramango.

k) Pabiloien barruan zolak garbitzean sortutako ura tratamendu-lerrora bidaliko da.

l) Olio eta koipeen bereizgailua aldian-aldian ikuskatuko da, hondakinak pilatu ez daitezen; metatutako lohiak eta flotatzaileak aldian-aldian kendu behar dira. Hondakin horiek baimendutako kudeatzaile bati emango zaizkio.

m) Andel edo putzuen hondoan pilatzen diren solidoak ez dira ibilgura hustuko aldizkako garbitze-lanetan zehar; behar bezala kudeatuko dira edo zabortegi baimendura eramango dira.

n) Arazte-prozesuan pilatutako hondakin solidoak eta lohiak aldizka aterako dira instalazioa behar bezala ibil dadin. Behar izanez gero, gordailu iragazgaitzetan eta hondoan hustubiderik ez dutenetan gordeko dira.

o) Inoiz ez dira pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoko ura kutsatzeko arriskua egon daitekeen guneetan.

p) Arazteko instalazioek lohien tratamendua badute, xukatutako ura instalazioaren sarrerara birzirkulatuko da, hori tratatzeko.

q) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

r) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isurketak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko. Kasu horretan, honako baldintza hauek azpimarratu behar dira:

Estazioan erroilu erako edo gai pikortatuzko, edo antzeko berariazko gai xurgatzailea egongo da, ustekabeko jario edo ihesetan berehala aplikatu ahal izateko.

Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen jarioei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak

eta kaltetutako inguruneak isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

Ebazpen honen B.1.4 atalean deskribatutako jarduerez gain, fuel-olioa eta animalia-koipea biltegiratzeko eta maneiatzeko instalazioak behar den bezala isolatuko dira, gerta daitezkeen hausturen ondoriozko isuriei, ustekabeko gainezkatzeei, eta abarrei aurre egiteko.

Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

Halaber, prozesuaren funtzionamendu egokiaren ustiapen- eta zaintza-eskuliburua izango da. Aldizka egindako mantentze-lanen eta kontrolen eragiketak, zein antzemandako gorabeherak jasoko dira bertan, eta enpresa espezializaturen bat bertaratzea aholkatzen da.

Era berean, nahitaez kontratu bat sinatzea eskatzen da araztegiaren mantentze-lanetarako, eta prozesuaren, errendimendu eta arazketaren, ekipo elektromekaniko eta sentsoreen funtzionamendu egokia ikuskatzeko.

Enpresa espezializatu batek egindako araztegiaren mantentze-lanen protokolo edo eskuliburu bat eduki behar da nahitaez, eta bertan, hauek finkatuko dira: ekipo elektromekanikoen mantentze-lanak, arbastuen garbiketak, gehiegizko solido, lohi eta abarren purgatzeak, erreaktore biologikoko lohien kontzentrazioaren aldizkako jarraipena barne, horiek behar bezala purgatu eta erretiratzeko.

Hondakin-ura ezingo da «by-pass» bidez isuri arazketa-instalazioetan.

s) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean, besteak beste, ustekabeko isuriak, isurtzeko muga-balioak gainditzea, produktu kimikoak isurtzea, sutea..., enpresak berehala gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari.

t) Gorabehera edo arazo larriren bat edo ustekabeko isuriren bat egonez gero, SOS Deiak eta Udalari ere jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, eta bertan, datu hauek agertuko dira gutxienez:

- Gertakari-mota.
- Gertakaria non, zergatik eta zein ordutan gertatu den.
- Iraupena.
- Ustekabeko isuria izanez gero, emaria eta isuritako gaiak.
- Mailak gainditu badira, isurtzeei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen balioespena.
- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Prebentziozko neurriak berriro gerta ez dadin.
- Prebentziozko neurriak eraginkortasunez aplikatzeko ezarritako epeak.

u) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

E) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hori egitea gomendatzen badute, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi

ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa, jardueraren sustatzaileak hala eskatuta, edo ofizioz, aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

F) Urtean behin Manuel García Mendoza SA enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara botatako kutsagarriei, uretara egindako isurketei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi, botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko, E-E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurketen gaineko informazioa ematea arautzen duen apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuari jarraituz.

Informazio hori ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko da. Informazioa Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez gauzatuko da, hori baita kanpoko erakundeek eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ingurumen-informazioa batak besteari elektronikoki emateko ardatza. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-L03 Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (www.eper-euskadi.net web-orrian eskuragarria): Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistrora (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena.

Halaber, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

G) Apirilaren 21eko 509/2007 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. idatz-zatiari jarraituz, lehendik dauden instalazioen titularrek agintaritzari jakinarazi beharko diote instalazio horietan erabiltzen eta ekoizten diren substantziek, 1907/2006 EE araudian erregistratu eta ebaluatzeko aurreikusitako prozesuan identifikatu direnak, giza osasunerako eta ingurumenerako izan dezaketen arriskua.

H) Ingurumeneko baimen bateratu honen eraginpeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, Ebazpen honetako lehenengo.– ataleko ondorengo puntuetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatuko beharko da Ingurumen Sailburuordetzaren aurrean: B.1.1.2 (Usainen fokurako tximiniaren garaieraren kalkuluen memoria justifikatzailea eta gas ez-kondentsagarriek jasotzen duten tratamenduaren frogagiria); B.1.1.4 (BIA fuel-olioa lurrun-galdaren erregai gisa gas naturalaren ordez erabiltzeko aukeraren inguruko bideragarritasunaren azterketa); B.1.2.3 (Isurketaren analisia); B.1.2.4 (Arazketa– eta hustuketa-instalazioen neurri zuzentzaileak betetzen direnaren egiaztagiria); B.1.3.1 (Sortutako laborategiko hondakinen urteko kantitatea); B.1.3.1.f) eta B.1.3.2.c) (Sortutako hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen onarpen-agiriak); B.1.3.1.n) eta B.1.3.2.e) (Hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen erregistro-eredua); B.1.3.2 (Urtean sortutako toner eta inprimatzeko tinta kantitatea);

B.1.4 (Lurzoruaren babesaren inguruko baldintzak betetzen direla dioen egiaztagiria); B.1.6 (Usainen azterketa eta ezarritako gainerako neurriak betetzen direla dioen frogagiria); C.1 (atmosferarako isurtzeen kontrola); C.2 (Isurketaren kontrolerako kutxetaren UTM koordenatuak); C.6 (Ingurumena Zaintzeko Programaren agiri bategina); D.3 i) (Larrialdietan berehala eta eraginkortasunez jarduteko beharrezko materialak daudela jasotzen duen frogagiria); D.3.h) (Produktu kimikoen biltegiratzeen ziurtagiria) eta D.3.u) (Suteen aurkako babesaren egiaztagiriak).

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskaritza-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta Ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla. Horretarako, aipatutako ikuskapen-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari aditu batek eginda.

Goiko baldintza horiek guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko Ingurumen Sailburuordetzak emandako ebazpen hau jakinarazten den biharamunetik kontatzen hasita.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da eta, horren bitartez, ingurumeneko baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urteko epean egongo da indarrean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera ondorioak dauzkan egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edonola ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Seigarrena.– Manuel García Mendoza SA enpresak ebazpen honen xede den haragi-azpiproduktuak eraldatzeko instalazioaren inguruan titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori Ingurumen Sailburuordetzan jakinarazi beharko du, horrek onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du kausa hauek gertatzen direnean:

● Epearen barruan ez egiaztatzea ebazpen honetako hirugarren atalean ingurumeneko baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak betetzen direla, interesdunak behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen ez badu.

● Manuel García Mendoza SA enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

● Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Manuel García Mendoza SA enpresari, Ortuellako Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez dezakete Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren

aurrean, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunean kontatzen hasita, hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluarekin eta ondorengoekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2008ko martxoaren 31.

Ingurumeneko sailburuordea,
IBON GALARRAGA GALLASTEGUI.

I. ERANSKINA

ALEGAZIOEI BURUZKO TXOSTENA

Manuel García Mendoza SA enpresak Ortuellako (Bizkaia) udalerrian sustatutako haragi-azpiproduktuak eraldatzeko instalazioari dagokion ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduraren barruan ingurumen organoak sustatutako jendaurrean jartzeko izapidean, alegazio-idazki bat aurkeztu da.

Aipatu idazkian adierazten denez, enpresak borondate ona izan arren eta berritze-lanetan inbertsioa egin arren, koipeak urtzearen usainen ondorioz arazoak eta kutsadura etengabe sortzen dira, eta horiek bereziki Trapagarango udalerriari edo Ortuellako udalerriari eragiten diete, nagusi diren haizeen arabera.

Halaber, aipatzen denez, ezarritako neurri zuzentzaileek edo urindegian ezar daitezkeenek ez dute usainen arazoa konponduko, instalazioen mantentze-lanen gabeziagatik edo langileen axolagabekeriagatik. Beraz, enpresa erasandako udalerrien hirigunetik oso hurbil dagoenez, herritarren bizitza kalitatea hobetzeko asmoa baldin badago, instalazio ixtea eskatzen da.

Hasteko, gogorarazi behar da uztailaren 1eko 16/2002 Legeak atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea duela helburu, edo hori ezinezkoa bada, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezarriz, horrela ingurumen osoaren babes-maila altua lortzeko.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko.

11. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira.

Arlo honetan, ingurumeneko baimen bateratua emateko eskumena duen organoak, proiektua bere osotasunean ebaluatu ondoren, ebazpen-proposamena egingo duela jasotzen da. Proposamena ingurumeneko baimen bateratuaren edukiari buruzko Legearen 22. artikuluak ezarritakoan oinarrituko da eta emandako txosten lotesleen baldintzak jaso beharko ditu. Ildo horretan, aipatutako 22. artikuluaren arabera, eman beharreko baimenak, besteak beste, ondorengoak jaso beharko ditu:

a) Teknika erabilgarri onenetan oinarritutako isurtzeko muga-balioak.

b) Behar denean, lurzoruaren eta lurpeko uren babesa bermatuko duten aginduak.

c) Instalazioan sortutako hondakinak kudeatzeko erabiliko diren prozedurak eta metodoak.

d) Behar denean, distantzia luzeko edo mugaz haraindiko kutsaduraren minimizazioa bermatuko duten aginduak.

e) Mota guztietako isurketak eta hondakinak tratatzeko eta kontrolatzeko sistemak eta prozedurak, neurketak ebaluatzeko neurketa-metodologia, maiztasuna eta prozedurak zehaztuz.

f) Ingurumenari eragin diezaioketen eta ohikoak ez diren egoeretan (martxan jartzea, isuriak, funtzionamendu-akatsak, aldian aldiko geldialdiak edo behin betiko itxiera) ustiaketaren baldintzen inguruko neurriak.

g) Aplikatzekoa den legeria sektorialak ezarritako bestelako neurri edo baldintzak.

Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruz indarrean den araudian eta Manuel García Mendoza SA enpresak Ortuellako (Bizkaia) udalerrian sustatutako haragi-azpiproduktuak eraldatzeko instalazioari aplikatzekoa zaion ingurumeneko araudi sektorialean xedatutakoa betez, ingurumen organoak instalazio osoaren balorazio orokorra egin du, ondoren modu egokian abian jartzeko hartu beharreko neurriak zehaztu ahal izateko.

Honela, ingurumeneko baimen bateratu honek, organo honek Manuel García Mendoza SA enpresari ezartzea beharrezkotzat jo dituen baldintza eta betebeharrak jasotzen ditu; honen bidez, atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestu, edo hori ezinezkoa denean, kutsadura hori murriztu eta kontrolatzeari buruz kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legean ezarritako helburuak bete daitezen, teknika erabilgarri onenak (TEO) kontuan hartuz, usainei lotutakoak barne (animalia-azpiproduktuei buruzko BREF agiria barne).

Ildo horretan, ingurumeneko baimen bateratuak ondorengo alderdiei buruzko baldintzak eta betebeharrak jasotzen ditu:

● Airearen kalitatea babesteko baldintzak (ebazpen honetako B.1.1.3 atala). Bertan, fokuei dagokienez enpresak bete beharreko isurtzeko muga-balioak ezartzen dira, eta horien artean dago usainen gasak xurgatzeko fokua. Honako hauek dira ezarritako mugak:

3. Usainen gasak xurgatzea	Karbono organikoaren guztizkoa (KOG)	20 mg/Nm^3
	Partikula solidoak	50 mg/Nm^3
	Hidrogeno sulfuroa (SH_2)	10 mg/Nm^3
	Azido klorhidrikoa (HCl)	30 mg/Nm^3

● Usainei lotutako baldintzak (B.1.6 atala). Bertan, ezarri beharreko usainak murrizteko neurriak ezartzen zaizkio enpresari, horiek modu egokian funtzionatu eta mantentzea eskatzen zaio eta hainbat neurri gehigarri eskatzen zaizkio. Neurri horien artean, «gaur egun usainak sortzen dituzten kutsatzaile atmosferikoen isurtzeen ingurumeneko arazoak ebaluatuko dituen azterketa bat egitea» dago. Horretarako, analisi fisiko-kimikoa nola usainak neurtzeko analisiak jasoko dituen neurketa-kanpaina egin beharko da. Azken honek, jardueraren usainaren iturri-sortzaileei lotutako isurtzeen usainaren unitateak neurtuko ditu.

Aipatu azterketak instalazioan hartutako neurrien eraginkortasuna zehaztea ahalbidetuko du, eta hala badagokio, baita instalazioak sortutako balizko usainen eraginak arinduko dituzten neurri berri gehigarriak ezartzeko beharra egiaztatzea ere.

● Ingurumena Zaintzeko Programari buruzko C.1 atalean, Manuel García Mendoza SA enpresak, besteak beste, isurtzeak kontrolatu beharko dituela jasotzen da, ondorengo informazioaren arabera:

Fokua	Erregistro-liburuaren izena	Fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
3	48001543-03	Usainen gasak xurgatzea	Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	Urtero
			Partikula solidoak	
			Hidrogeno sulfuroa (SH_2)	
			Kloroa (Cl_2)	
			Azido klorhidrikoa (HCl)	
			Amoniakoa (NH_3)	

Goiko atalean adierazitako neurketa guztiak Baimendutako Kontrol Erakunde (BKE) batek egin behar ditu (gutxienez, ordubeteko hiru neurketa, zortzi ordutan barrena neurtutakoak) eta aldizkako neurketa horiei dagozkien txostena, Ingurumen Sailburuordetzaren «BKEren gutxieneko txostenean» ezarritakoari egokitu behar zaio. Nolanahi ere, isurtzeko kontrolek eta baldintzek Ingurumen Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

Arestian eskatutako parametro guztien neurketen BKE txostenak bidaliko dira. Neurketa berriak egin beharko dira, baldin eta parametroen neurketarik ez badago edo egindako neurketak ebazpen honetan kontrol-maiztasuna ezarri aurretik egindakoak badira. Atmosferara egiten diren isurtzeen ondorengo kontrolak, egindako azken neurketan adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

Azkenik, Ebazpen honetako Hirugarren atalean xedatutakoari jarraituz, adierazi beharra dago ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra izan dadin, aldez aurretik hainbat baldintza betetzen direla ziurtatzen duten agiriak aurkeztu behar zaizkiola Ingurumen Sailburuordetzari. Baldintza horien artean, usainei lotutakoak daude. Halaber, baimen hau eraginkorra izan dadin, ingurumen organo honi atxikitako zerbitzu teknikoek behar izanez gero egingo duten ikuskaritza bisitan egiaztatu beharko da instalazioek Ebazpen honetan ezarritakoa betetzen dutela.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da eta, horren bitartez, ingurumeneko baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da.